/// UDAL HAUTESKUNDEAK 2015

HAUTESKUNDE PROGRAMA

DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN

ERNESTO GASCO

DONOSTIAKO ALKATEGAIA

PSE-EE
PSOE

Ernesto Gasco buru duen Donostiako Udalerako sozialiston hautagaitzaren hauteskunde-programak hiritarrek helarazitako kezkak eta proposamenak biltzen ditu, eta zeharkako hiru ildo hauetan egituratzen da:

1.- Enplegu-sorrera eta tokiko ekonomiaren garapena. Hiri bizia

2.- Gizarte-kohesioa eta kudeaketa partekaturako hiritar-ituna. Hiri integratzailea

3.- Dinamismo kulturala eta sortzailea. Hiri erakargarria

Hautagai sozialiston konpromiso politikoan, zibikoan eta pertsonalean oinarritutako programa da, hiriko auzo guztietan proiektu handiak eta txikiak, jardunak eta politikak aintzat hartzen dituena. Hiritarrek hiri garbia, ondo kudeatua eta zaindua eskatzen dute, gizarte-kohesioa duena eta proiektu partekatuak eta adostuak dituena, betiere Donostiak aurrera egin dezan –ostalaritza eta salgune txikiak sustatuko dira, eta ekin, inbertitu eta enplegua sortzen dutenei lagunduko zaie–. Hiritarrek hiri unibertsitarioa, ikertzailea, kultua, sortzailea eta integratzailea nahi dute, gizarte-justiziaren, giza eskubideen eta memoriaren babeslea, euskalduna eta eleanitza, irekia eta mundura konektatua, 2016ko Europako Kultur Hiriburu izateaz harro dagoena.

Gehiengoarentzat gobernatzeko programa da, sektarismorik eta alderdikeriarik gabea, Donostiako hiria eta hiritarrak babestuko dituena, alderdien siglen, kontsignen eta dogmen gainetik, Donostiako sozialistok Donostia gobernatzen eman dugun urteetan erakutsi dugun bezalaxe. Hiria ez da batzuk besteen aurka eraikitzen. Ahaleginak eta borondateak batzeko konpromisoa dugu, jarrera frentistak alboratuta eta erronka kolektiboak eta hiriko proiektuak berriro partekatuta.

Donostia da ETAren terrorismoaren intolerantzia eta indarkeria gehien jasan duen hiria, bertako kaleetan hil da biktima kopururik handiena. Orain, zorionez, bizi ditugun indarkeriarik eta estortsiorik gabeko garai hauetan, Donostiak elkarbizitzarako kulturaren eta bakearen hiria izaten jarrai dezan nahi dugu; ETAren terrorismoaren eta orotariko indarkeriaren biktimekiko elkartasunaren, aintzatespenaren eta memoriaren hiria izan dadin nahi dugu; topaketa- eta gogoeta-hiria, Europako hirietan jasaten ditugun askotariko gatazkak ebazten laguntzeko proposamenak egingo dituen hiria. Helburu horrekin eratu zen Bakearen Etxea Aiete Jauregian. Xede hori sendotzeko, hasierako izpiritua berreskuratuko dugu, eta Aieteko Jauregia gatazken bitartekaritzako eta Giza Eskubideen Nazioarteko Institutu gisa sustatuko dugu, Euskal Herriko Unibertsitatearekin elkarlanean.

Guretzat, Donostia dago ororen aurretik. Eta harrotasunez eta gogo biziz lan egingo dugu azken lau urte hauetan galdu den denbora berreskuratzeko eta gure hiria politika sozialetan, kulturaletan eta zerbitzukoetan izan zen erreferentea berriro izateko; hortaz, bakearen, desberdinen arteko elkarbizitzaren eta Giza Eskubideen errespetuaren balioetan hezten duen hiri integratzailearen aldeko apustua egingo dugu.

Hiritarrek egin dute Donostia, eta hala egiten jarraitu beharko dute. Izan ere, erakundearen lidergoaren eta hiritarren kontzertazioaren emaitza dira konfigurazio ekonomikoan, soziokulturalean eta hirigintzakoan erdietsitako lorpenak, zehazki gaur egungo zerbitzuko, merkataritzako, gastronomiako, turismoko, kulturako, unibertsitateko eta ikerketako hiri kohesionatua eta integratzailea osatu izana.

Gaur egunerako eta etorkizunerako apustuak egiten jarraitu behar dugu, proiektuak diseinatzen eta partekatzen jarraitu behar dugu, hiriak aurrera egin dezan ongizatean, etxebizitzan, enplegu-sorreran, garraiabide publikoetan (Donostialdeko metroa, autobus geltokia), konektagarritasunean (AHTa iristea, Donostiako/Hondarribiko Aireportua sustatzea), nazioarteko sareetan eta gazteen eta adinekoen lan- eta bizitza-aukeretan.

Donostiak ezin dio errealitate demografikoari bizkarra eman, donostiarron ia laurden batek 65 urtetik gora duenean. Adineko pertsonei zuzendutako neurri eta politika zehatzak jarriko ditugu abian, baina neurri eta politika horiek baliagarriak izango dira, halaber, hirigintza eta etxebizitza hobetzeko, baita mugikortasuna, irisgarritasuna, gizarte-zerbitzuak, osasun-zerbitzuak, kultura eta aisialdia hobetzeko, eta, azken finean, donostiar guztien bizi-kalitatea hobetzeko, edozein adin izanik ere.

Donostia auzo guztiekin egiten da, auzo guztiekin eraikitzen da, hirigunetik hurbilen dagoen auzotik urrunen dagoen auzora, hots, auzo bakoitzeko hiritarrekin egiten da; lurralde-mailan hiri batua eta plurala eta hiritar-mailan hiri kohesionatua osatuko da, eta zona bakoitzaren berezitasunek aberastu egingo dute hiria.

Ikuspegi horretan oinarrituta, erabakimenez sustatuko dugu Barrutien sorrera, Altzako barrutitik eta Igeldoko udalez peko erakundetik hasita. Hiria auzoetatik eraikitzeko modu bat izango da; Udala barrutietako bakoitzera hurbilduko da, eta barrutietako bakoitzeko auzokoen esku jarriko dira kudeaketa partekatuko bitartekoak eta tresnak, betiere auzoetako premiarik hurbilekoenak hurbiltasunetik eta eraginkortasun eta kontrol handiz ebazteko.

Hiriko espazio publiko eta ingurune degradatuak edo suntsituak lehengoratzea izango da lehentasunetako bat, betiere lurralde- eta gizarte-kohesioaren alde lan egiten jarraitzeko. Auzo berriak eraikitzen soil-soilik inbertitu beharrean, eta Txomingo eta Loiolako Kuarteletako epe labur eta ertaineko proiektuez harantzago, Mundaiz, Amara –Carlos Ieko bidezubia ezabatuta–, Sagues edo Infernua gisako inguruneak berreraikitzearen eta birgaitzearen aldeko hauta egin dugu.

Donostiako sozialistok gehiengoarentzako proiektu hiritar eta kolektibo bat gidatu nahi dugu, non Udalak eta hiriko eragile ekonomikoek, sozialek eta kulturalek batera gauzatuko duten hiriak aurrera egiteko behar duen aldaketa eta transformazioa. Donostiako gizarte-ehunaren aberastasuna, esperientzia eta interesik gabeko lanerako ahalmena baliatu behar ditugu; auzo guztietan integratuta dauden orotariko elkarteen, kluben eta taldeen aberastasuna, esperientzia eta lana baliatu behar dugu, horiek baitira Donostiako ondarerik handiena politika egiteko moduak aldatzeko eta, garrantzitsuena dena, hiria egiteko moduak aldatzeko bidean.

Donostiako hiritarrei, gizarte zibilari, itzuliko diegu Donostiaren eraldaketan historikoki izan duten protagonismoa. Erantzukizun zibikoko ituna proposatuko dugu udal-politiken eta -zerbitzuen (batez ere kulturaren eta kirolaren arloetako politiken eta zerbitzuen) diseinu eta kudeaketa partekatuan. Lehentasunak, premiak, irtenbideak eta erantzukizunak hiritar-ehun antolatuarekin partekatzea da interes orokorrak, gardentasuna eta kudeaketa publikoaren gaineko konfiantza babesteko bermerik onena, hurbileko udal-gobernantza sakontzeko modurik onena.

Donostia izango da 2016ko Europako Kultur Hiriburua, eta kultur proiektu hiritar horren prestaketak eta lorpenak harrotasun eta ilusio kolektiboa piztu zuen donostiarren artean; beraien proiektutzat hartzen zuten proiektua partekatzen zuten, borondateak bateratzeko eta tokiko eta Europako eragileekin batera Elkarbizitzarako Kulturan lan egiteko aukera paregabetzat jotzen zuten proiektu hori; gure hiria eta lurraldea Europako gainerakoan eta munduan proiektatu nahi zuten.

Europako Kultur Hiriburutzarako urte-erdi falta denean, eta Bilduren udal-gobernuak proiektu horretan izan duen kudeaketa txarraren ondorioz, donostiarrek proiektuaz kanpo ikusten dute beren burua, proiektuarekiko loturarik gabe eta desengainatuta.

Donostiako sozialistok ahalegin bizia egingo dugu hiritarren artean Donostia 2016 proiektuarekiko konfiantza eta konplizitatea berreskuratzeko. Alkatetzatik, eta Udalaren osotasunetik, geure gain hartuko dugu lidergo instituzionala eta hiritarra, Europako Kultur Hiriburutzaren ospakizuna Donostiak eta donostiarrek merezi duten mailan egon dadin.

HIRI-PROIEKTUAK

Donostiako sozialistontzat, hiri-proiektuak lehentasuna duten proiektuak dira, kokatzen diren lekuan kokatzen direla ere, auzo batean edo bestean; Donostiaren ikuspegi integraletik eta integratzailetik, Grosen gertatzen denak Altzan, Benta Berrin edo Igeldon du eragina.

Hiri-berroneratzeko jardunak dira, espazio publikoak eta zibikoak lehengoratzeko jardunak dira, tokiko, lurralde-mailako eta nazioarteko konexio- eta garraio-azpiegituretako inbertsioak dira, pertsonak hurbiltzen dituztenak eta giza, gizarte, kultura eta ekonomiaren mailako lotura eta sare berriak sortzen dituztenak, auzoak eta hiriak lotuz eta Donostialdeko bilbe metropolitarra ehunduz, Donostiak ezin baitio ingurune metropolitarrari bizkarra eman.

1.- 2016 Europako Kultur Hiriburutza salbatzea. "Arima, bihotza eta bizitza" jarriko dugu donostiarrak harro egon daitezen Donostia 2016 Elkarbizitzarako Kultura. Energia Olatuak proiektuarekin eta proiektuaren parte izan daitezen. Babes pribatuak lortuko ditugu; hiriko industria kulturalarekin eta sortzailearekin lotzen den enplegua sortzen lagunduko dugu; ahalegin berezia egingo dugu akordio estrategikoak lortzeko Europako beste hiri batzuekin; hiriak nazio-mailako eta Europako foroetan duen presentzia areagotuko dugu, hiriburutzaren programa ezagutarazteko; hiria egokituko dugu bisitariak hartzeko... Europako Kultur Hiriburutzak Donostiak eta donostiarrok merezi dugun arrakasta izan dezan lortu behar dugu.

2.- Monpasko pasabidea eta Saguesko urbanizazioa. Monpasko oinezkoen pasabidearen proiektua berreskuratuko dugu; proiektu horrek ingurumen-baimenak zituen eta Ingurumen Ministerioaren finantziazio ekonomikoa –Bilduk uko egin zion–. Donostiako sozialistok berriro lortuko dugu administrazio zentralaren inplikazioa, Donostiako itsasertzean zehar zortzi kilometrotik gorako oinezkoentzako pasealekua amaitzeko eta, hartara, donostiarrei eta bisitariei itsasertzean bertan beste espazio publiko adierazgarri bat eskaintzeko.

Aldi berean, **Saguesko zona berrurbanizatzea planteatzen dugu. Horretarako, espaloiak eta oinezkoentzako eta kirolerako espazioak zabalduko ditugu**, merkataritzako eta aisialdiko zona suspertuz, eta aparkaleku-zona gaituko dugu. Añarbeko ur-estazioaren aurrean.

3.- Amara berria, Carlos I. hiribideko oztoporik gabea eta Gobernu ordezkariordetza berreskuratuta. Gure helburua da **Carlos I.eko bidezubia behin betiko ezabatzea**, tarteko adabakirik egin gabe, adabakiek ez baitute auzoaren banaketaren arazoa ebazten. Bidezubia ezabatzeak eta **hiribide gisa birmoldatzeak** –erdialdean oinezkoentzako espazioa izango du eta alboetan tokiko trafikoa– **ingurune osoaren hiri-berroneratzeari** ekiteko aukera emango digu (Arquitectos Cortazar, Isabel II.a), eta, bide batez, barne-trafikoak eta aparkalekuak berrantolatuko ditugu eta Amarako merkataritza, ostalaritza eta ekonomia suspertuko dugu. Auzoaren modernizazio integralaren aldeko apustu horrek **barne-plaza nagusiak hobetzea** ere hartuko du barnean. Hobekuntza hori hiritarren inplikazio aktiboarekin egingo da.

Espainiako gobernuarekin negoziatuko dugu hiriaren esku geratzea Pio XII.a plazako **Gobernu ordezkariordetzaren** eraikina, **Amarako barrutiko egoitza** eta auzorako Kultur Etxea izan dadin –gaur egun Anoeta estadioan dagoen Ernest Lluch Kultur Etxea lekualdatuko litzateke eta espazio zibiko eta kultural horri zentraltasun eta hurbiltasun handiagoa emango litzaioke, Amarako auzotarren osotasuna kontuan izanik–. Eraikin horren erabilera kultural eta hiritar berriak oso lagungarriak izango dira zona hori berriro dinamizatzeko eta nabarmentzeko

4.- Donostialdeko Metroaren iritsiera, Easo kalean lurperatzea eta Loiolako Erriberetako aldageltokia. Patxi Lopez lehendakariaren Eusko Jaurlaritzak sustatu zuen Donostialdeko Metroaren proiektuak estrategikoa izaten jarraitzen du Donostiako sozialistontzat. Hiriaren auzoak eta Donostia Gipuzkoako lurraldearekin azkar eta segurtasunez lotuko dituen kalitateko tren-garraiabidearen aldeko apustua da. **Intxaurrondoko eta Herrerako geltokiak** ireki ostean, aurten Altzako geltokia zabalduko da, bertako auzotarrentzat lorpen historikoa. Eusko Jaurlaritzarekin eta Gipuzkoako Aldundiarekin batera erakundeen arteko akordiotik eta kontzertaziotik lan egingo dugu, Donostialdeko Metroaren hurrengo geltokiak ireki daitezen, hala nola **Loiolako geltoki berria** –behin betiko ebatziz geltoki berriaren eta Loiolako bidezubiaren eraikuntzan gertatzen ari den atzerapena, gaur egungo Eusko Jaurlaritzaren eraginez–, **Unibertsitatekoa**, Kontxa-**Erdialdekoa**. Euskotrenen eta Renferen arteko **Loiolako Erriberetako aldageltokia**, halaber, funtsezkoa da Donostiako trenbide bidezko garraioaren konektagarritasun-maparen barruan, eta aukera emango du Memoriaren Lorategiaren bigarren zatiari ekiteko.

Bestalde, **Easo Plazako Euskotrenen geltokiaren** ingurunea berrurbanizatzea proposatzen dugu; izatez, **trenbide-zabaltza lurperatzea** aurreikusten da eta horrek **Errondo bulebarra** eratzeko aukera emango du **Donostialdeko Metroari beste irteera bat eskainita Azpeitia kalean – Morlans**. Horrez gain, **beste bi plaza publiko** berreskuratuko dira Amara Zaharrerako eta hiri osorako, eta gainazalean **100 aparkaleku-plaza gehiago** eta **kirol-espazioak**

sortuko dira eta **arrapala mekaniko bat eraikiko da Osasun Iturri kalean**, baita **beste sarbide bat Autonomia kalerako** eta Amara Zaharrerako.

5.- Tabakalera, hirian integratua eta hirira zabalik. Tabakalerak, hiriko kultura- eta sormen-fabrika berria izateaz gain, garrantzi handiko hiri-transformazio baten zentroa izan behar duela iruditzen zaigu; egiteko dagoen hiri-transformazio horrek **Egia** auzoa, **Mundaizko** ingurune berritua, **Cristina-Enea parkea, Iparraldeko Geltokiko AHTren geltoki berria** eta lurpeko **autobus-geltokia** hartuko du.

Premiazkoa da administrazio eskudunekin akordioak lortzea, batez ere ADIFekin, gaur egungo geltokia berritzen hasteko eta, hartara, **AHT**a bertaraino iritsi ahal izateko, **Tabakalerarekin integratzeko –trenbideen gaineko plaza handi** baten bitartez– eta **autobus-geltokiaren gainazala urbanizatzeko. Kulturaren geltokia** izango da. Tabakaleraren eremua hiriaren "sinbolo" berrietako bat izatea nahi dugu, baita Egiarako, Loiolako Erriberetarako, Amararako, Groserako eta hiriaren osotasunerako bultzada eta berrikuntza sozial, kultural eta ekonomikoko motorra ere.

Musika eta Dantza Udal Eskola zabaltzeak, Blas de Otero plazaren azpian, ingurune berri horren kultur bizitzaren aberastasunean lagunduko du.

Mundaiz berriak, orain gune degradatua dena, modernizatu behar du Tabakaleraren irekierak dakarren biziberritze aukerak aprobetxatuz **Bizitegiko eta sormen industriako espazio mistoa, Berrikuntza Kulturalaren Gunea bihurtuz**.

Cristina Enea parkea Tabakalerara eta hirira zabaltzea eta horietan txertatzea proposatzen dugu. **Gaur egungo bereizte-horma eraitsiko litzateke**, hiritarren elkarbizitzarako eta gozamenerako espazio publiko handi bat sortuz.

6.- Giza Eskubideen eta Bitartekaritzaren Nazioarteko Institutua, Aieteko Jauregia. Sortzeko garaian aintzat hartu, baina legegintzaldi honetan galdu den, helburua eta izpiritua itzuliko diogu Aieteko Jauregiari: nazioarteko erreferentziazko lekua izatea bakearen eta giza eskubideen defentsan eta aurka dauden aldeen arteko bitartekaritzan, betiere munduko gatazkei irtenbidea aurkitzeko. **Euskal Herriko Unibertsitatearekin** hitzarmena sinatu nahi dugu, arlo horietan adituak diren irakasleekin eta ikertzaileekin lan egiteko eta nazio-mailako eta nazioarteko organismoak inplikatzeko, Aieteko Jauregia gatazken bitartekaritzaren ikerketarako, prestakuntzarako eta adituen lanerako Europako eta munduko erreferente izan dadin.
Tokiko Biktimen Foroarekin egingo dugu lan, betidanik egin dugun erara, terrorismoaren eta biolentzia ororen biktimei zor dizkiegun oroimena, justizia eta elkartasuna defendatuz.

7.- Altzako kiroldegia eta adinekoentzako eta gazteentzako apartamentuak Iralen. Altzako kiroldegi berriaren eraikuntzarekin batera –**gimnasia erritmikorako** eta **waterpolorako** espazioak eta **aparkaleku-plaza berriak** izango ditu–, **Iraleren** eraikina, **Larratxon**, eraldatzea eta bertan adinekoentzako eta gazteentzako apartamentuak eraikitzea proposatzen dugu. Hartara, espazio hori gizarte-xede batekin lehenegratuko da, eta ingurune osoa suspertuko da. Halaber, **Oletan parking** bat eraikiko da.

8.- Auzo berria Loiolako Kuarteletan. Defentsa Ministerioarekin zentzuzko irtenbide bideragarria negoziatzeko konpromisoa hartu dugu; izatez hiriak duen hazkunde-eremu urrietako bat berreskuratu nahi dugu, behar-beharrezkoa baitugu donostiarrei etxebizitza-soluzioak eskaintzen jarraitzeko. Eremu horretan gutxi gorabehera **3.000 etxebizitza berri (libreak, sozialak eta alokairukoak)** aurreikusten dira. Garai politiko berriek aukera paregabea eskain diezagukete Kuarteletako espazioa berreskuratzeko, eta ez gaude

aukera hori alferrik galtzeko prest. Bi administrazioen arteko akordioak, beraz, Loiolako Kuarteletako auzo berria hainbat eragile profesionalen eta hiritarren kontzertazioarekin diseinatzeko aukera emango du.

9.- Martutene-Txomin, oraina eta etorkizuna. Urumea ibaia dragatzea. Lehentasun handikoa da jada onartuta dauden uholdeak saihesteko obretan azkar aurrera egitea Urumearen ibarrean, eta batez ere Martutenen. **Txomingo** garapena (2.200 etxebizitza berriak) amaitzen ez den bitartean, areagotu egin beharko ditugu hiri-mailako mantentze-lanak eta Martuteneko auzotarrentzako udal-zerbitzu publikoak.

Artelekuko eraikina berreskuratzearen alde egingo dugu, betiere auzorako kirol-ekipamendu eta ekipamendu zibiko gisa.

Era berean, **Urumea ibaia dragatzea** eta ibaiaren uhaldietan eta uholdeetan eragina duten eta nabigagarritasuna eragozten duten lohi eta harea metatuak **garbitzea** proposatzen dugu. Hiriak berriro ibaiari begiratzea eta donostiarrek eta bisitariek Urumea **ibaia kirolerako eta aisialdirako espazio berezi gisa** ahalik eta gehien baliatzea nahi dugu.

10.- Belaunaldi arteko plan solidarioa. Bizitzeko egokia eta hiritar guztientzako **atsegina den Donostia** nahi dugu, udal-zerbitzuez baliatzeko aukera berdinak emango dizkiena gazteei, adin ertainekoei eta adinekoei, eta premiarik handiena dutenen –donostiarren zein kanpokoen– bizi-beharrei arreta emango diena. Ezin diogu bizkarra eman langabeziaren, etxebizitza-galeraren eta hil amaierara iristen ez direnen errealitateari. Pertsona eta kolektiborik kaltetuenen artean bazterkeria eta gizarte-desorekak borrokatzeko udalak ematen dituen laguntza eta politika sozialei eutsiko diegu. Horrez gain, Planak inbertsioak aurreikusten ditu m**ugikortasun bertikalean** –igogailuak eta arrapalak Aieten, Egian, Larratxon eta Amara Zaharrean–, gazteentzako eta adinekoentzako **alokairuzko apartamentuetan** –Ategorrietan (Haztegietan), Amaran, Larratxon, Atotxa Errekan–, **Zaharren Txokoen hobekuntzan eta berrikuntzan**, eta espazio publikoetako **oztopo arkitektonikoak ezabatzeko lanetan**, betiere inplikatutako gizarte-kolektiboen eta -eragileen kontzertazioarekin.

11.- Anoetako eremua erakargarriagoa, estadioa eta Illunbe birmoldatuta. Anoetako kirol-zonaren osotasuna hiritarrentzat erakargarriagoa izan dadin lortu nahi dugu. **Anoetako estadioa** birmoldatzearen aldekoak eta **Real Sociedad** taldeak ahalik eta baldintzarik onenetan jokatu ahal izatearen aldekoak gara; betiere Udalaren, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren elkarlanarekin.

Aldi berean, zentzuz lan egingo dugu **Illunbeko konplexua** interesgarria izan dadin inbertitzeko eta jarduera ekonomikoa sortzeko, eta, horrela, merkataritza-erabilerak izango dituen gune bizia eta erakargarria izan dadin –lanpostuak eta hirirako aberastasuna sortuko dituena–. Bestalde, Illunben **zezenketak** egitea ahalbidetuko dugu berriro ere.

12.- Ondarearen garrantzia nabarmentzea: Bellas Artes eta Alde Zaharra. Donostiarrek hiriko ondare arkitektonikoaren eta kulturalaren aberastasuna ezagut eta goza dezaten nahi dugu, betiere ondare horren garrantzi historikoa, kulturala eta turistikoa nabarmentzeko eta behar bezala babesteko. Ondarea babesteko modurik onena zentzuzko erabilera ahalbidetzea da. Hori dela eta, **Bellas Artes** eraikina kultur erabileretarako berreskuratzearen alde egingo dugu. Horretarako, jabego pribatuarekin truke-akordio bat itxi nahi dugu, Bellas Artes eraikina Donostiako Orfeoiaren eta Donostiako beste abesbatza batzuen egoitza gisa birgaitu ahal izateko; edonola ere, eskaintza osatuko luketen bestelako kultur jardueretarako egoitza ere izango litzateke. Era berean, beharrezkoa deritzogu Donostiako **Alde Zaharra eta portua** babesteari, ingurune horren berezitasuna babesteko eta kontserbazioa bermatzeko.

1. ENPLEGU-SORRERA ETA TOKIKO EKONOMIAREN GARAPENA. HIRI BIZIA

Erakunde publikoek beharrezko bitarteko guztiak jarri behar dituzte enplegu-sorrera sustatzeko, ekonomia suspertzeko eta murrizketa-politikek eragindako gizarte-desberdintasunak gelditzeko. Horretarako, kalitateko zerbitzu publikoak eta aukera-berdintasuna bermatu behar dituzte.

Udalek, enpleguaren arloko eskumen zuzenik ez duten arren, mekanismo eta politika ekonomikoak, sozialak, eta zerga-arlokoak dituzte, oso lagungarriak inbertsioak erakartzeko eta enpresa, denda eta jarduera ekonomiko berriak zabaltzeko. Azken finean, mekanismo eta politika horien bidez, lanpostuen sorreran eta hirirako aberastasunen sorreran lagun dezakete Udalek.

Donostiako sozialistontzat, erabateko lehentasuna du inbertsio estrategikoak sustatzea, tokiko ekonomia indartzea eta beste lanpostu batzuk sortzen laguntzea, eta, ildo horretan, Ekonomia Suspertzeko Plan Integrala jarriko dugu abian. Plan horrek hainbat sailen udal-politikak bilduko ditu, zehazki proiektu eta inbertsio estrategikoak bultzatzen dituztenak eta denda, ostalaritza-establezimendu, enpresa eta hainbat arlotako ekimen ekintzaileak zabaltzea lagunduko dutenak.

Lurralde-mailako eta nazioarteko komunikazio-azpiegiturak hobetzea, halaber, oinarrizko apustu estrategikoa izango da Donostia gisako zerbitzu- eta turismo-hiri baten garapen ekonomikorako, batik bat 2016an Europako Kultur Hiriburu izango den honetan.

Gure konpromisoa da Donostia hiri erakargarri bihurtzea inbertsiorako, enplegua eta jarduera ekonomikoa sortzeko eta pertsona ekintzaileek, batik bat gazteek, haien enpresa- eta bizi-proiektuak bertan garatu ahal izateko. Udalak, oro har, erraztasunak eman beharko dizkie negozio bat, jarduera bat, enpresa bat zabaldu nahi duten pertsonei, haien aliatua izan behar du, baita etxebizitzak eta lokalak hobetu eta birgaitu nahi dituzten hiritarrena, espazio publikoetan askotariko jarduerak egin nahi dutenena...

/// NEURRI ESTRATEGIKOAK

1.1.- Suspertze ekonomikoko arlo handi baten sorrera. Gaur egungo **Donostia Sustapena, Plan Estrategikoa eta Lehendakaritza barnean hartuko dituena**. Eraginkorrak izan behar dugu jarduera ekonomikoa sustatzeko udal-politiketan, baita enplegu duina eta kalitatekoa sustatzekoetan eta inbertsioak, baliabideak eta garapen sozioekonomikoko, kulturaleko eta turistikoko aukera berriak bilatzekoetan ere. Horrez gain, erantzun azkarrak eta errazak eman behar ditugu, enpresa ezartzea eta negozio txikiak irekitzea lagunduko dutenak, eta langabeziaren eragin handiena jasaten duten kolektiboak –batik bat gazteak, emakumeak eta 45 urtetik gorako pertsonak– orientatzen eta lan-munduratzen lagunduko dutenak. Bikoiztasunak eta administrazio-deskoordinazioak saihestu behar dira, eta ahaleginak, baliabideak eta ezagutzak metatu behar dira. Gizarte Kontseilua deituko dugu berehala bertan parte hartzen duten eragile ekonomiko, sozial eta sindikaleekin batera hiriko ekonomia suspertzeko neurriak adosteko eta partekatzeko.

1.2.- Merkataritza eta Ostalaritza Zinegotzigoa. Kontuan izanik merkataritzak eta ostalaritzak Barne Produktu Gordinaren % 25 direla, erabakimenez lagundu beharko diogu zerbitzu- eta merkataritza-sektoreari,

motor ekonomiko eta lanpostuen sortzaile izaten jarrai dezan. Horretarako, berariazko zinegotzigo bat eratuko dugu, Donostiako auzo guztietako ostalaritzaren eta saltokien –txikien, hurbiltasunekoen, hiriko markakoen– aldeko neurriak bultzatu eta kudeatuko dituen solaskidea eta zuzeneko arduraduna izango dena.

1.3.- Obra-baimenak bi hilabetetan. Obra-baimenak ahalik eta azkarren eta errazen emateko konpromisoa hartu dugu. Baimen Zuzendaritza berri bat antolatuko dugu eta beharrezko baliabideak eskainiko dizkiogu. Lokalak irekitzeko eta etxebizitzetan obrak egiteko baimenak bi hilabeteko epean ematen ez badira, eskatzaileek baimenean % 50eko beherapena izango dute, eta, udal-baimena bi hilabete baino beranduago ematen bada, ez dute ordaindu beharrik izango.

1.4.- Ostalaritza; aisialdi eta zibismo handiagoa eta hobea. Gastronomia eta tabernen, terrazen eta jatetxeen eskaintza zabala da hiriaren turismo-erakargarritasunetako bat. Ostalaritzaren sektorearekin batera lan egingo dugu kalitateko ostalaritza-eskaintza erakargarria sustatzeko, baita **gaueko aisialdiko** eskaintza sustatzeko ere. Eskaintza horrek hainbat publikori eta ekonomiari erantzun beharko dio, eta beste negozio batzuk irekitzen eta lanpostuak sortzen jarraitzea ahalbidetu behar du. **Terrazei buruzko zentzuzko ordenantza** babestuko dugu, dimentsioan eta ordutegian turismo-hiri baten beharretara eta eskarietara egokituko dena eta uztartuko dituena, batetik, jarduera ekonomikoa eta aisialdiaren gozamena eta, bestetik, zibismoa, jardunbide onak eta auzotarren atsedenarekiko errespetua.

1.5.- Kirol-ekitaldietako turismoa. Hainbat sektoretan, gastronomian, osasunean, kulturan, **garatuko ditugu**, hala nola **kirolean, Donostiaren ahalmen turistikoak nazioarte mailan**. Hirian nazioko eta nazioarteko lehen mailako kirol ekitaldiak antolatzen dira, Behobia-San Sebastián, Maratoia, Clásica- Txirrindulari lasterketa, estropadak eta Kontxako Bandera, zaldi lasterketak, besteak beste, milaka pertsona erakartzen dituztenak eta garrantzi handiko itzulera ekonomikoa eragiten dutenak. Kirol-turismoa turismoaren hazkundearen hobietako bat da, baita sustatuko dugun hiriaren irudia munduan proiektatuko duen baliabideetako bat ere.

Donostia **hainbat kirol-ekitaldiren egoitza izan dadin nahi dugu**: gimnasia erritmikoko Euskadiko txapelketa, atletismo-mitinak, errugbiko nazioarteko partidak, esku-pilotako buruz buruko txapelketa,...

1.6.- Eskutzaizetako enpresa-jarduerak. Hiriak Zubietako goialdean, Eskutzaizetan, du enpresak eta jarduera ekonomikoak instalatzeko espaziorik handiena. Guk **lurzoru publikoko industria- eta ekonomia-poligono hori garatzearen alde egingo dugu**, bertan enpresek eta ekintzaileek kalitateko enplegua sortu ahal izan dezaten eta Donostiak Euskadin enpresa-bolumen handiena duen hiria izaten jarrai dezan –betiere biztanle kopuruaren arabera–. **Eskutzaizetan instalatzen diren enpresa sortu berriek 4 urteko gabezia izango dute partzela ordaintzeko garaian**. Berriak ez diren enpresek baina **enplegu berriak sortzen dituztenek 2 urteko gabezia** izango dute, eta **alokairu biguneko formulak** planteatuko ditugu **35 urtetik beherako ekintzaileentzat**.

1.7.- Industria-poligonoak eta parke teknologikoak. Papin poligonorako sarrera hobetzeko obrak bizkortuko ditugu, Pasaiarekin muga egiten duen zona horretan dauden enpresen premiazko beharrei erantzuteko, eta **Martuteneko 27. poligonoan eta Zuatzun** zerbitzuak modernizatzen

eta hobetzen jarraituko dugu. Era berean, **Miramonek** Gipuzkoako Parke Zientifiko eta Teknologiko gisa duen izena ona eta marka berraktibatuko ditugu. Lurraldean hedatzeko eta inbertsio eta enpresa berriak erakartzeko lan egingo dugu, berrikuntza eta ikerketa biomedikoaren erreferente eta polo bihur dadin berriro.

1.8.- Modaren klusterra. Donostia beti egon da lotuta modarekin eta diseinuarekin. Lehen mailako jostun eta enpresa ugarik eman zituzten lehen urratsak gure hirian, eta aurrera egin nahi duten diseinatzaile gazteen belaunaldietan daude horien ordezkoak. Donostiako Modaren Klusterra eratu nahi dugu, uste osoa baitugu sektore horren eta industria sortzaile eta kultural guztien ahalmen ekonomikoetan, batez ere gazteentzako enpleguaren sorrerari dagokionez eta hiri ekintzaile, gazte eta sortzaile gisako proiekzioaren eta markaren apustu gisa.

1.9.- Internazionalizazioa. Donostiarrak munduan. Donostiatik kanpo bizi diren eta lan egiten duten donostiarrek ekar dezaketen talentuaren, ezagutzaren eta esperientzien aberastasuna baliatu behar dugu guztion artean hiria eraikitzeko. Aurrerapen teknologikoek edozein donostiarrekin etengabe harremanetan egoteko aukera ematen digute, dagoen lekuan egonik ere. Hori dela eta, munduan dauden eta hiriaren alde lan egiten duten donostiarren sarea sortuko dugu, Donostiak mundu osoan dituen enbaxadore eta preskriptore gisa. Era berean, Donostian aplika daitezkeen proposamenak eta iradokizunak biltzeko eta partekatzeko aplikazioa bat jarriko dugu abian, guztion artean Donostiak gizarte-kohesio handiagoa, bizi-kalitate handiagoa eta dinamismo ekonomiko eta kultural handiagoa izan dezan.

1.10.- Baiona–Donostia eurohiria. Baiona–Donostia eurohiria osatzen dugun erakundeen arteko lan komuna sendotuko dugu, aurrerapen errealak eta eraginkorrak lortzeko garraio publiko bidezko konexioen hobekuntzan – batik bat trenbide eta autobus bidezkoetan– eta kulturaren eta turismoaren arloko programazioan eta baterako produkzioan. 2016ko Europako Kultur Hiriburutzak baliagarria izan beharko luke Baiona–Donostia eurohiriko eremu metropolitar handia osatzen dugun hirien eta udalerrien arteko harremanak eta elkarlana sendotzeko.

2. GIZARTE-KOHESIOA ETA KUDEAKETA PARTEKATURAKO HIRITAR-ITUNA. HIRI INTEGRATZAILEA

/// GIZARTE-POLITIKAK

2.1.- Hiritar guztientzako ongizate eta bizi-kalitate duinak bermatzea. Gizarte-erantzun egokia bermatuko dugu. Aurrekontu-sailak antolatuko ditugu krisialdiaren ondorio lazgarriek gehien zigortu dituzten pertsonen gutxieneko premiak modu indibidualizatuan estaltzera zuzenduko diren **laguntza ekonomikoetarako eta asistentzialetarako**. Donostiako auzoetan, hezkuntza- eta gizarte-eragileekin eta gobernuz kanpoko erakundeekin batera lan egingo dugu premiak hautemateko eta zentzuzko irtenbide adostuak eskaintzeko, betiere gabezia eta arazo sozioekonomikoei dagokienez, etxebizitza-arazoei dagokienez, gizarteratzeari dagokionez eta, bereziki haurrei eta gizarte-sektore kaltetuenei arreta emateari dagokionez.

2.2.- Gizarte-zerbitzuetako zentroa Loiolako Erriberak auzoan. Gizarte-zerbitzuetako udal-zentro hori egokitzeko obrak bizkortu behar dira, zentro horrek jada martxan egon behar zuen eta. Garrantzi handikoa da udal-zerbitzuak hiriko auzoetan deszentralizatzen jarraitzea, batez ere gizarte-arreta. Arlo horretan, Loiolako Erriberak auzoko zentroa funtsezko ekipamendua da.

2.3.- Erantzunkidetasuneko eta familia-kontziliazioko plana. Erantzunkidetasun-ekimenak sustatzeko plana eta hiritarren kontziliazioa –familiakoa, lanekoa eta pertsonala– bultzatuko duten mekanismoak sustatzeko plana jarri nahi dugu abian. Gizonek eta emakumeek etxeko erantzukizunak partekatzea eta lan profesionala eta familiako bizitza eta bizitza pertsonala bateragarri egin ahal izatea erraztu nahi dugu. Haurtzaindegiak zabaltzea bultzatuko dugu, batez ere poligonoen eta enpresa- eta unibertsitate-parkeen ondoan. Zerbitzuen eta kultura-programazioaren eskaintzak eta ordutegiak aztertuko ditugu, familien aisialdiko beharretara egokitzeko. Hiritarrak kontzientziatzeko kanpainak jarriko ditugu abian.

2.4.- Hirugarren sektorearen Institutua. Hirugarren sektorean giza kohesioaren alde udal giza zerbitzuekin batera lan egiten duten erakunde, elkarte eta gobernuz kanpoko erakundeen zeregina erraztea da gure nahia. Eta horretarako Hirugarren Sektoreko Institutua eratuko dugu bertan arlo honetan lan egiten dutenek baliabideak, zerbitzuak, aukerak, hausnarketak eta etorkizuneko proiektuak partekatzeko aukera izan dezaten. Institutu honen inguruan Gizarte Bazterketaren Behatokia eratuko dugu ahultasun egoeran dauden pertsonen eta giza-taldeen egoeraren diagnostikoa eta eboluzioa aztertzeko.

2.5.- "Renove" plana Zaharren Txokoetarako. Auzoetako Zaharren Txokoak hobetzeko eta berritzeko plana jarriko dugu abian. Horretarako, oztopo arkitektonikoak ezabatuko ditugu, igogailuak instalatuko ditugu, urritasunak konponduko ditugu eta instalazioak seguruagoak eta erosoagoak bihurtuko ditugu Altzan, Intxaurrondon eta Urbieta-Larramendin, besteak beste.

2.6.- Boluntariotza sustatzea. Donostiar askok erakutsi ohi duten konpromiso solidarioa baloratu eta bultzatu behar da, eta ehun sozialarekin eta gobernuz kanpoko erakundeekin elkarlanean boluntariotza solidarioa ahalbidetu eta sustatuko duten mekanismoak bilatu beharko dira, erkidegoari laguntzeko modu gisa, belaunaldien arteko eta kulturen arteko bizikidetza eta ikaskuntza gisa eta gizarte-integrazioko eta kohesioko modu gisa.

/// BALIOETAN ETA ELKARBIZITZAN HEZTEN DUEN HIRIA

2.7.- Donostiak berriro ere erreferente izan behar du balioetan hezten duen hiri gisa: bakearen balioan, Giza Eskubideekiko errespetuaren balioan, terrorismoaren biktimekiko elkartasunaren eta memoriaren balioan eta desberdinen arteko elkarbizitzaren balioan. Hiritar guztiekin, baina batez ere gazteenekin, kultur jarduerak eta hezkuntza-proiektu pedagogikoak egingo dira, balio zibikoak eta demokratikoak sustatzeko helburuarekin. Horregatik, Aieteko Jauregiak Giza Eskubideen eta Bitartekaritzaren Nazioarteko Institutu gisa duen egitekoa aldarrikatzen dugu.

2.8.- Biktimen tokiko forua bilduko dugu berriro ere, azken lau urte hauetan ez baita bildu. Helburua da gure hirian eta gure herrian gauzatzeke dagoen konponketaren, memoriaren, justiziaren eta elkarbizitzaren eraikuntzan guztiok elkarrekin lankidetzan jardutea.

2.9.- Hainbat kultura- eta gizarte-ikuspegitatik topaketa, gogoeta, kritika eta desberdinen arteko ulermena sustatzen duten antolakundeekin, elkarteekin eta erakundeekin elkarlanean jardungo dugu, elkarbizitzarako zubiak eraikiz.

/// GAZTERIA

2.10.- Donostiako gazteen beharrei erantzungo dieten **gazteriaren arloko zeharkako politikak** babestuko ditugu. Horretarako, bizitzaren hainbat etapa hartuko dugu aintzat: pubertaroko eta gaztaroko lehen faseetako kulturaren, kirolaren eta aisialdiaren gozamenetik, bizitza profesionaleko eta pertsonaleko proiektuak garatzeko gazteen kezketara –etxebizitza, enplegua, hezkuntza, familia-kontziliazioa eta kultura–.

2.11.- Gazteei zuzendutako **aisialdi- eta kultura-plana abian jartzea Gaztelekuen eta Kultur Etxeen bitartez**. Plan horrek aukera eta proposamen erakargarriak eskaini beharko dizkie 14 eta 18 urte arteko gazteei, eta proposamen horiek auzoetako ekipamenduetan edo espazio publikoetan eta ordutegi zabaletan eta, batik bat, asteburuetan garatzeko modua izan beharko dute.

2.12.- Hiriko ikastetxeekin elkarlanean, **ikasleen trukeak sustatzea estatuko beste hiri batzuekin eta Europako gainerako hiriekin**. Horretarako, Europako sareak, Donostiarekin anaituta dauden hiriak edo Europako Kultur Hiriburutzak eskain ditzakeen aukerak baliatuko dira.

2.13.- Balioak, gizalegea, elkarbizitza eta desberdinen arteko errespetua oinarri izango duen heziketa sustatzea, eta, horrela, ikastetxeekin, Kultur Etxeekin eta hiriko gizarte- eta kultura-eragileekin batera prestatzea jatorri desberdineko donostiar gazteen beste hizkuntza eta kultura batzuen ezagutzarako eta trukerako programak eta jarduerak.

2.14.- Hainbat auzotan skatea praktikatzeko espazio egokiak gaitzea.

2.15.- Kontzertuak, ikuskizunak eta kultura- eta jai-ekitaldiak programatzeko garaian, gazteak aintzat hartzea, haientzat erakargarriak izan daitezen eta hiriko kultur eskaintzan parte hartu eta gozatu ahal izan dezaten.

2.16.- Gazteek alokatzeko apartamentuak eraikitzea Ategorrietan (Haztegiak), Iralen (Larratxo) eta Amara kalean

2.17.- 30 urte beherakoentzako laguntza eta bonifikazio bereziak enpresa berriak, dendak eta hainbat negozio zabaltzeko eta lan postuak sortzeko.

/// BERDINTASUNA

2.18.- Berdintasun-politikak sustatuko ditugu **udal-esparru guztietan** eta hiriko ekonomiaren, gizartearen, kulturaren eta kirolaren sektoreetan.

2.19.- Diziplina anitzeko ikuspegi integraletik lan egingo dugu, emakumeen eta eragile sozialen kolektiboekin batera, Donostia **hiri inklusiboa eta berdintasunezkoa izateko, emakume-begirada duena eta generoaren ikuspegia kontuan hartuko duena** hirigintza eta arkitektura hobetzeko (lehentasuna emanez **hiriko puntu beltzak ezabatzeari**), gizarte zerbitzuak hobetzeko, enplegu duina lortzeko, hiritarren segurtasuna areagotzeko, kultur programazioa ezartzeko, kirola egiteko eta laneko eta familiako bizitza uztartzeko (familiaren baterako erantzunkidetasun-plana, 2.3). Donostiar guztiek, bizitza-proiektuak garatzeko garaian, aukera, eskubide eta betebehar berdinak izateko apustua argia da.

2.20.- Jarraituko dugu **beharrezko udal-laguntzak eta -prestazioak ematen bizitza duina izateko arazoak dituzten emakumeei**, familia-kargak dituzten emakume langabeei, baztertze arazoak dituztenei, tratu txarren biktima diren emakumeei...

2.21.- Tratu txarrak eta genero-indarkeria salatzeko heziketa- eta kontzientziazio-kanpainak indartuko ditugu, eta **bereziki gazteei zuzenduko zaizkie**, betiere ikastetxeekin elkarlanean.

/// KALEEN ETA HONDARTZEN GARBIKETA ETA MANTENTZE-LAN HANDIAGOA. HERRITARREN SEGURTASUNA. HIRI-BERRONERATZEA. ETXEBIZITZA, BULEBAR ETA PARKE BERRIAK ETA BERRITUAK

2.22.- Lehentasuna izango dute garbiketak, asfaltatzeak eta hiria eta hondartzak mantentzeko lanek. Donostiako hiritarrak hiri garbia eta ondo zaindua edukitzeaz berriro harro egon daitezen lortuko dugu. Bikoiztu egingo ditugu **garbiketako** aurrekontua eta hiria mantentzeko lanetara zuzenduko diren langileak; **urteko Garbiketa eta Mantentze Plan ebaluagarria** jarriko dugu abian.

2.23.- Kalitateko asfaltatze-kanpaina –ez adabakiak– egingo dugu auzo guztietako bide nagusietan.

2.24.- Hiri-altzariak (eserlekuak, farolak, Kontxako eta beste pasealeku batzuetako baranda, haur-parkeak, eta abar) **konpontzeko, margotzeko eta egokitzeko lanak egingo ditugu**.

2.25.- Hiri osoan eta dagokion denboran gauzatuko den **kimatzeko premiazko plana** –ez zuhaitzak botatzekoa– landuko dugu, hirian gehien sufritzen duten auzo eta kaleetatik ekinez (Bidebietan, Amaran, Egian, Erdialdean...).

2.26.- Parkez parke, zuhaitzaz zuhai. Hiriko parke eta lorategietako aberastasun paisajistikoa donostiarrei zein bisitariei jakitera emateko eta balioan jartzeko Plana, erakargarritasun turistikoa ere azpimarratuz. Informazio-liburuxkak egingo ditugu; parkeetako zuhaitz eta landareak adierazgailuen bidez identifikatuko ditugu eta berdeguneen erabilera ludikoa eta kulturala sustatuko dugu..

2.27.- Lore-lehiaketak eta lorategien eta parkeen pop-up diseinurako lehiaketak deituko ditugu paisajismoa aberasteko, sormena suspertzeko eta hiriko parkeen eta berdeguneen turismo-erakargarritasuna indartzeko.

2.28.- Hondartzei dagokienez, lehentasuna du hondartzak baldintza ezin hobeetan mantentzeak, Ondarretako hondartzan ahalik eta harri gehien kentzeak –ateratzen direnean–, Kontxako harea nibelatzeak, eta kirol-erabileren eta bainu-hartzaileen segurtasunaren antolamendu orekatuak.

/// HIRITARREN SEGURTASUNA

2.29.- Udaltzaingoak auzo **guztietako kaleetan duen presentzia areagotuko dugu**, udaltzain gehiago zuzenduko baitugu delituen prebentziora.

2.30.- Ahalik eta azkarren lekualdatuko dugu behin betiko **Udaltzaingoaren egoitza Morlansko egoitza berrira**.

2.31.- Udaltzaingoak **Altzan zabaldutako bulegoa indartzea.**

2.32.- Udaltzainen **etengabeko trebakuntzari lehentasuna** emango diogu, batik bat herritarren arretarako zerbitzuari helburu zehatz batekin: **herritarrei ematen zaien arreta eta erantzun pertsonalizatua hobetzea.**

/// ETXEBIZITZA ETA HIRI-BERRONERATZEA

2.33.- Txomin berriaren 2.200 etxebizitza berriez gain, **3.000 etxebizitza** libre, sozialak eta alokatzeko eraikitzea proposatzen dugu **Loiolako Kuarteletan**. Espainiako Gobernuarekin akordioa lortzeari ekingo diogu helburu estrategiko premiazkoa baita guretzat lur sail hori berreskuratzea. Eta lortuko dugulakoan gaude guztiok zentzuz eta erantzukizunez jokatzen badugu.

2.34.- 600 babespeko apartamentu gazteentzat eta adinekoentzat. Sozialiston ekimenez lortu dugu Ategorrietako antzinako udal-haztegien lursailetan babespeko apartamentuen eraikuntza onartzea. Formula misto baten aldeko apustua egin dugu: 70 apartamentu alokairuan gazteentzat eta adinekoentzat, belaunaldien arteko elkarbizitza sustatuko dutenak. Era berean, irtenbide bera proposatzen dugu, **150 etxebizitza baino gehiagorekin, Amara Zaharrean** (Udalaren eta Poliziaren antzinako etxeetan), apartamentuak adinekoentzat eta gazteentzat **Iraleren** eraikinean, **Larratxon eta gazteentzat Atotxa Errekan, Añorgan**.

2.35.- Bizitegi-erabilera berriak Infernuan eta mistoak Mundaizen.

Hiriak hiri-hedapenerako leku gutxi duenez gero, hiri berria eraikitzearen alde egin beharrean, hiri-eremu degradatuak –hala nola **Infernua**– birgaitzearen eta lehengoratzearen alde egin dugu. Añorgarekin muga egiten duen eremu hori modernizatu egin behar da, bertako erabilerak berrantolatu egin behar dira eta modu egokiagoan integratu beharko da hiri-bilbean, betiere etxebizitza berrien, bulegoen eta elkarbizitzako espazio publikoen eraikuntzarekin.

Mundaiz eremuari dagokionez, Tabakalera kultur zentroaren irekiera baliatu behar da ingurune mugakide hori lehengoratzeko. Bertan hirigintza-garapen misto berria ahalbidetuko da, hau da, etxebizitzak eta sormen- eta kultura-industriekin lotzen diren bulego- eta enpresa-espazioak garatzea proposatuko da –hartara, Tabakalerarekin jakintzako eta berrikuntzako trukeak eta fluxu ekonomikoak sortu ahal izango dira–..

2.36.- Trenbidearen estaldura zabaltzea Intxaurrondon eta Marrutxipiko ibarrean.

Intxaurrondon Renferen trenbidearen beste tarte batzuk estaltzen jarraitu behar da, **oinezkoentzako espazio gehiago** lortzeko eta **auzoaren hainbat zonen arteko konexioa ahalbidetzeko**.

Marrutxipiri dagokionez, gaur egungo komunikazio-nodoa ebazteko aukera emango duten saihesbidearekiko lotuneak gauzatu behar dira. Era berean, aldirietako aparkaleku bat gaitzea proposatu dugu; aparkaleku horretako erabiltzaileei hirigunera erraz iristea ahalbidetuko dien garraio publikoko zerbitzua izango du aparkalekuak.

2.37.- Añorgan eta Loiola-Martutenen bulebarrak sortzea. Lau urte galdu dira obra hauek egiteko. Berehala ekingo diegu Añorgako, Loiolako eta Martuteneko hiritarrek aspalditik itxoiten ari diren oinezkoen espazioak berreskuratzeko lanei, bidegorri-konexioari eta trafikoa murrizteko lanei. Ezinbestekoa da auzo horietako hiritarrek eta Donostia osoko hiritarrek espazio berri horiez gozatu ahal izatea, bestelako atzerapenik gabe, bertakoen bizi-kalitatean eta hiriaren gainerakoarekiko konexioan hobekuntza nabarmena izango du eta.

2.38.- Haur-parke estaliak. Familien eskari nagusietako bat da. Auzo bakoitzean parke estali bat egotea proposatzen dugu. Arkitektura- eta diseinu-formularik egokienak eta eraginkorrenak bilatuko ditugu haur-parkeak estaltzeko eta, euria egiten duenean eta baldintza klimatologiko txarrak direnean, erabili ahal izateko.

2.39.- Lore-Toki Donostiako parke publiko gisa berreskuratzea. Espainiako Gobernuarekin zentzuzko adostasun batera iristeko lan egingo dugu hiriak epe ertainean parke publiko paregabe batez eta aisialdiko gune bikain batez gozatu ahal izan dezan. Inguru hori Donostiako ondare berdean txertatuko litzateke eta baliagarria izan daiteke hiriaren eta herrialdearen beste ondare artistiko handi baten konexio gisa: Chillida-Leku Museoa –2016ko Europako Kultur Hiriburutzaren ospakizunarekin berriro ateak zabaldu ahal izango dituelakoan gaude–.

/// BOSGARREN EDUKIONTZIA

2.40.- Sozialistok lortu dugu Bilduk Donostian atez ateko zabor-bilketa ez ezartzea eta gai organikoetarako bosgarren edukiontzia edo edukiontzi marroia onartzea birziklapena gehitzen jarraitzeko bide gisa. **Edukiontzi bidez birziklatzearen aldeko apustuarekin jarraituko dugu, eta gai organikorako bosgarren edukiontzia auzo guztietara zabalduko dugu**. Era berean, edukiontzi marroia erabiltzen dutenei **zaborraren zergan hobariak** aplikatzen jarraituko dugu..

2.41.- San Markosko Mankomunitatearen eskutik jarraipen zehatza egingo dugu gure kaleetan instalatutako **edukiontzien egoera eta mantentze-baldintzak hobetzeko**, eta pixkanaka **berrituko ditugu iristerrazagoak eta erosoagoak egiteko**, batez ere adineko pertsonentzat, zailtasun handiagoak baitituzte zaborra uzteko garaian..

2.42.- Alde Zaharreko zabor-bilketaren sistema hobetuko dugu bertako bizilangunen, merkatarien eta ostalaritzaren beharrei erantzun egokiak emanez.

/// INGURUMEN-ESTRATEGIA

2.43.- Klima-aldaketaren aurkako IHOBEren behategia. Donostiak klima-aldaketaren aurkako euskal estrategian lider izatea proposatzen dugu, ingurumen-proiektu estrategikoen arloko IHOBEren ingurumen-behategi baten egoitza gisa.

2.44.- Cristina Enea fundazioaren egitekoa sendotzea. Sozialistok politika jasangarriak eta ingurumen-heziketako eta -kontzientziazioko politikak abian jartzearen aldeko hauta egin dugu. Politika horien erreferente argia da Cristina Enea Fundazioak garatzen duen lana. Udal-gobernu sozialistek arlo horretako hainbat neurri bultzatu dituzte: materialen birziklatze-kanpainak –jaietan edalontzi birziklagarriak erabiltzea–, ostalaritzan ur-pitxerrak erabiltzea, bigarren eskuko azokak (Donostitruck), Tokiko Agenda 21 sustatzea, besteak beste. Gazteen eta helduen ingurumen-pedagogia eta -heziketa sustatzen jarraituko dugu, Cristina Eneko profesionalen eskutik.

2.45.- Azokak eta pop-up ekintzak produktu eta diseinu birziklatuak merkaturatzeko. Sektoreko gizarte-eragileekin batera lan egingo dugu –hala nola Emaus fundazioarekin eta ekintzaile berriekin– birziklatze-ekimen berritzaileak garatzeko moda, altzaria, diseinua eta dekorazioa gisako esparruetan; izatez, sektore horiek enplegu gaztea sortzeko hobia dira, baita aukera profesional bikaina sortzaile eta diseinatzaile gazte askorentzat ere. Ekitaldiak, azoka txikiak eta pop-up ekintzak antolatzea sustatuko dugu, birziklatze-produktuak eta -diseinuak merkaturatzeko erakusleiho eta plataforma gisa.

2.46.- Pantailak ezartzea kutsadura akustikoko inguruetan. Loiolako Erriberak auzoan eta saihesbidearen ondoan eta bide-lotune berrien ondoan dauden inguruetan pantaila akustikoak ezartzea proposatzen dugu, baldin eta horrelako babesik ez badute.

/// IRISGARRITASUNA ETA MUGIKORTASUNA

2.47.- Arrapalak Egian eta Amara Zaharrean (Osasun Iturri kalea).

- **Egia kalearen** irisgarritasuna hobetuko dugu, kalearen erdian eraikiko den arrapala mekaniko baten bidez gainditukо da gaur egungo malda. Horrela, Egia auzorako sarbide nagusia eroso eta esfortzu berezirik gabe zeharkatu ahal izango da, batez ere mugikortasun zailtasunak dituzten pertsonek.

- **Amara Zaharrean, Osasun Iturri kalean**, ere arrapala mekaniko bat gaituko dugu.

2.48.- Igogailuak Aieten, Antiguan (Erregezain) eta Altzan (Jolastokietan).

- **Aiete eta Morlanseko ingurua**, bidezubiaren mutur baten ondoan, lotuko duen igogailuaren proiektua gauzatuko dugu. Horrek nabarmen hobetuko du Aiete auzoaren eta Amararen eta hirigunearen arteko oinezkoen konexioa.

- Beste igogailu batek Antiguako **Errezain kalearen eta Heriz pasealekuaren** arteko kota-desberdintasuna gainditukо du.

- **Igogailu inklinatu bat** instalatuko da Altzan, **Larratxoren eta Altzako erdigunearen** artean et **Jolastokietan igogailu bertikala inguruan**.

2.49.- Mikrobusak Uliara eta San Antonio-Montesolera eta maiaztasun gehiago Aiete-Pagolan. Autobusen udal-zerbitzuaren, Dbusen, hobekuntza sustatzen jarraituko dugu. Maiztasun handiagoak aztertuko ditugu, baita beste linea batzuk ezartzea auzo guztietara iristeko, hala Uliara eta San Antonio-Montesolerara mikrobus bidez eta maiaztasun handiagoa eskainiz Aieteko eta Pagolako bizilagunei.

2.50.- Auzo guztietan bizikletak alokatzeko guneak eta bizikletetarako aparkaleku estaliak.

- Bizikleta **hiri-garraiabide gisa erabiltzea bultzatuko dugu**, beti egin dugun bezalaxe. **Oinezkoen eta txirrindularien aldeko zibismo- eta errespetu-kanpainak** sustatuko ditugu, eta auzo guztietan bizikletak alokatzeko udal-zerbitzuaren gune gehiago jarriko dugu.

- **Bidegorriak behar bezala seinaleztatu eta berpintatuko ditugu**, batez ere, Erdiguneko eta Groseko oinezkoentzako kaleetan, Teresa de Calcula Plaza, besteak beste; izan ere, gaur egun ez dira nabarmentzen arazo ugari eraginez oinezkoen eta txirrindularien arteko bizikidetzan.

- Era berean, **bizikletak aparkatzeko espazio estaliak, itxiak eta seguruak** gaitzeko irtenbide burutsuak jarri behar ditugu abian. Esate baterako, lurpeko parkingetan zona espezifikoak gorde daitezke edo Easo Plazako edotan Mendeurrenaren Plazako antzinako komunak – gaur egun erabiltzen ez direnak– bizikletetarako aparkaleku gisa eralda daitezke.

2.51.- Disuasio-parkingak Herrera, Martutene eta Añorga Txikiko tren geltokien ondoan.

2.52.- Udalaren garaje-plazak urteko aldietarako alokatzea. Garaje-plaza bat behar dutenei erraztasunak eman nahi dizkiegu, eta, horretarako, zentzuzko prezioak dituzten alokairuak proposatu nahi ditugu plaza libreak dituzten udal-parkingetan (Cervantes Plaza, Katalunia Plaza). Urtebetetik aurrerako aldi malguko alokairuak izango lirateke.

2.53.- Semaforoak oinezkoen eta desgaitasunak dituzten pertsonen beharretara egokitzea. Hiriko semaforoak berregokitu behar dira oinezkoek errepidea erraz gurutza dezaten. Horretarako, gurutzatzeko denbora gehitu nahi da, eta soinu-oharrak eta zenbaki-kontagailuak jarriko dira errepidea zeharkatzeko zenbat denbora geratzen den jakiteko.

2.54.- TAO mugikortasun mugatua duten pertsonentzat eta mendekotasun handia duten pertsonentzat. Ingurune desgaitzailerik gabeko hiri inklusiboa eta integratzailea babesten dugu. Mugikortasuna mugatua duten pertsonek eta mendetasun handia duten pertsonek aukera berak izan beharko dituzte hiritik mugitzeko eta haien ibilgailua aparkatzeko. Hori dela eta, desgaitasuna duten pertsonentzako Europako aparkaleku-txartela duten ibilgailuetarako TAO binetek edo MM binetek mendekotasun handian dauden pertsonak eta horien zaintzaileak ere hartu beharko dituzte.

2.55.- Donostiako/Hondarribiko Aireportua. Beti babestu izan dugu aireportua garatzea eta sendotzea, helmuga eta hegaldi eskaintza handiagoarekin, Gipuzkoako biztanleriaren osotasunaren premiei modu lehiakorrean erantzun diezaion. Aireportua sustatzearen eta modernizatzearen aldeko apustua estrategikoa da Donostiarentzat, eta industriaren eta enpresaren sektorearentzat ez ezik, barruko eta kanpoko turismoarentzat ere bai, eta, are gehiago, 2016an Europako Kultur Hiriburu izango garela jakinik. Erakundeen arteko akordioa sustatuko dugu, Ortzibian parte hartzen duten administrazio eskudun guztiak inplikatuta. Akordio horren bidez, Donostiako/Hondarribiko Aireportua suspertuko dugu, hegaldi kopurua, maiztasunak eta helmugak zabalduta. Aldi berean, Bilboko eta Miarritzeko aireportuen hurbiltasuna baliatu behar dugu eskaintzak osatzeko eta garraio publiko bidezko konexioak hobetzeko.

/// KUDEAKETA PUBLIKO PARTEKATUA ETA GARDENA. ERANTZUNKIDETASUNA GOBERNANTZAN

2.56.- Kudeaketa publiko partekatua eta gardena. Erantzunkidetasuna gobernantzan. Hiriko hainbat sektoretan lan egiten duten elkarteek eta eragileek politiketan eta erabaki partekatuetan inplikazio aktiboa izan dezaten ahaleginduko gara, batez ere Kulturaren, Kirolaren eta Garapen ekonomikoaren arloko gaietan. Horretarako, kontseilu zibikoetan parte hartzea bultzatuko da. Kontseilu zibiko horietan barnean hartuko dira arlo horietan lan egiten duten profesional independenteak, erakundeak, klubak eta elkarteak, eta helburua izango da partekatzea eta oniritzia ematea aurrekontu-lehentasunei, hartu beharreko neurriei eta ildo estrategikoei, betiere udal-politiken erantzunkidetasun eta kontzertazio publiko-pribatuaren aldeko apustu argian.

2.57.- Altzako barrutia eta Igeldoko udalez peko erakundea. Udal-kudeaketaren arloko deszentralizazioaren, eraginkortasunaren eta erantzunkidetasunaren aldeko gure apustuaren eraginez, hirian 4 barruti

eta Igeldoko udalez peko erakundea jarriko dira abian. Hauek dira barrutiak: Ekialdea (Altza, Intxaurrondo, Bidebieta eta Mirakruz), Erdialdea-Hegoaldea (Amara, Erdialdea, Loiola eta Martutene), Mendebaldea (Añorga, Antigua, Aiete, Ibaeta, Igeldo, Miramon, Zorroaga eta Zubieta) eta Ipar-ekialdea (Ategorrieta, Ulia, Egia eta Gros). Hurbiltasun-politika berri hori Altzako barrutiarekin jarriko da abian.

2.58.- Gardentasuna. Alkatetzako gastuak emango ditugu argitara. Garrantzi handikoa da hiritarrek jakitea nola erabiltzen den haien zergetatik bildutako diru publikoa, eta, hartara, kontu publikoak argitara emango dira udalaren webgunearen bitartez. Alkatetzaren kasuan, zehatz-mehatz jakinaraziko dugu alkateak zer aurrekontu duen eta hilez hil zer gastu egiten duen, donostiarron aurrean kontuak aurkezteko.

2.59.- Udalaren webgunea, hiritarrei informazioa eta arreta emateko zerbitzu gisa. Udalaren webgunea berriro ere informaziorako eta zerbitzurako bidea izango da, Bilduk propaganda ideologikoko eta partidistako tresna bihurtu baitu. Webgunearen bidez, hiritarrek on line egin ahal izango dituzte izapideak eta zerbitzuen informazioa lortu ahal izango dute, eta Udalaren eta hiritarren arteko komunikazio-bide arina, erraza eta eraginkorra izango da.

2.60.- Astean egun bat hiritarrentzat. Astean egun batez, lehentasunez ostegunez, alkatearen agenda hiritarrei zuzenduko zaie; eskatzen duten hiritar guztiekin egotera eta hiritar horiei entzutera eta arreta ematera eskainiko du eguna.

2.61.- Udal-espazioak berrantolatzea. Easo kaleko udal-eraikina hiritarrentzako zerbitzu eta erabilera berrietara egokitu beharko da, behin udaltzaingoa Morlansera lekualdatutakoan –udaltzaingoak okupatutako espazioa Proiektu eta Obretarako zabalduko da–. Horrez gain, kontuan izan behar da 2016an Europako Kultur Hiriburutza amaitutakoan, espazio hori libre geratuko dela eta Francisco Escudero Musika Kontserbatorioaren instalazioak zabaltzeko erabil daitekeela. Donostia Turismoko kideekin Turismo bulego berriaren kokapena adostuko dugu.

2.62.- Beste administrazio batzuen eraikinak erabiltzeko plana. Administrazioen eraikin publikoen mapa landuko dugu, eraikin horiek non kokatzen diren, erabiltzen diren edo bertan zer zerbitzu egiten diren jakiteko. Horrela, bulegoen eta higiezinen benetako banaketaren argazkia izango dugu eta, aurrekontu-prestasunen eta beharren arabera, negoziatu ahal izango dugu higiezin horiek hiriarentzat berreskuratzeko aukera –hala nola Banco Centralaren egoitza, Garibai kalean, edo antzinako INEMen bulegoak, Okendo kalean–.

3.

DINAMISMO KULTURALA ETA SORTZAILEA. HIRI ERAKARGARRIA

Donostiak aspalditik egin du kulturaren eta hezkuntzaren aldeko apustua. Kultura eta hezkuntza funtsezko tresnatzat jo ditu herritar libreen, errespetutsuen eta kritikoen garapen pertsonalerako eta banako prestakuntzarako, baita garapen kolektiborako eta kohesio, elkarbizitza eta integrazio sozialerako eta kulturalerako ere.

Donostiako sozialiston kultur politiketako apustu estrategikoa izan da –eta izaten jarraituko du– kultur ekipamendu publikoen, Kultur Etxeen eta liburutegien sare sendoa osatzea –herritarrei prestakuntza, sormen eta erakusketarako aukerak eta zerbitzuak eskainiko dizkiena– eta nazioarteko jaialdien garapena bultzatzea, hala nola Nazioarteko Zinemaldiaren, Jazzaldiarena, Musika Hamabostaldiarena, Giza Eskubideen Zinemaldiarena eta Fantasiazko eta Beldurrezko Zinemaren Astearena.

PSE-EEk gidatuta lortu dugu Donostia kulturaren eta euskararen euskal hiriburu bihurtzea, eta, horretarako, Udalaren guztizko aurrekontuaren % 10 inguru inbertitu dugu kulturan. Inbertsioak egin ditugu hiriaren nortasuna finkatzen duten kulturaren arloko azpiegituretan, zerbitzuetan, programazioan eta orotariko proiektu handietan, txikietan eta ertainetan; Donostiaren ADNaren ezinbesteko eta oinarrizko elementu bihurtu dugu kultura.

Proiektu horien guztien artean, estrategikoetan estrategikoa dugu 2016ko Europako Kultur Hiriburutza lortzea.

Donostia 2016. Elkarbizitzarako kultura. Energia olatuak herritarren proiektu kolektiboa izan zen hasiera-hasieratik; amets bat izan zen, giltzarri historikoa Donostiako hiriarentzat eta hiritarrentzat; donostiarron parte-hartzea, konplizitatea, sormen-energia, poza eta harrotasuna piztu zuen giltzarria izan zen. Donostiarrok geure egin genuen bakerako eta elkarbizitzarako hezkuntzaren eta kulturaren balioetan oinarritutako kultur proiektu hori.

Haatik, Bilduk legegintzaldi honetan egin duen kudeaketaren eraginez, alferrik galdu da Donostiarentzako, Gipuzkoarentzako eta Euskadirentzako aukera historiko hori. Hiru urte galdu dira kultur proiektu irabazlearen oinarri izan ziren proiektu eta prozesu transformatzaileak abian jartzeko; herritarren konfiantza eta inplikazioa galdu da, eta herritarrekiko aldentze kezkagarria gertatu da; ez dago proiektuen eta jardueren gaineko informaziorik, komunikaziorik eta gardentasunik; ez dago finantziazio eta babes pribaturik, ezta proiektua gure lurraldeaz kanpo ezagutarazteko estrategiarik eta marketinik ere; hiriak ez du bisitariak eta turistak hartzeko plan integralik konektagarritasunari, garraioari edo hotel-azpiegiturei dagokienez; ez dago, kultura garapen ekonomikoaren motor gisa bultzatuko duten sormen- eta kultura-industriekin lotuta, enplegua sortzeko planik; eta, kezkagarriena dena, ez dago lidergo politikorik, ezta Donostiako Udalaren ikuspegi estrategikorik ere. Gainera, Udalaren arduradun nagusiak, alkateak, proiektua oztopatu du, eta oztopatzen jarraitzen du.

Donostia 2016, Europako Kultur Hiriburua proiektu partekatua da, Donostiako Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzak eta Kultura Ministerioak partekatutako proiektua da. Edonola ere, Alkateak eta hiriko gobernuak hartu behar dute euren gain Hiriburutzaren arrakasta bermatzeko funtsezko bultzada eta erantzukizun nagusia.

Donostiako sozialistok gogo biziz hartuko dugu geure gain hiriarekiko eta hiritarrekiko konpromiso hori; prest gaude larrua uzteko eta Donostia 2016ko

Bulegoko talde teknikoarekin batera buru-belarri lan egiteko –hautagaitza prestatzeko eta hautatzeko fasean erakutsi genuen bezalaxe–. Donostiarren bihotza berriro erakarri nahi dugu, herritarren energia-olatuak eta inplikazioa suspertu nahi ditugu, proiektuaren arima baitira. Itun estrategikoak ezarri nahi ditugu nazioko eta nazioarteko beste hiri batzuekin; laguntza, elkarlan eta finantziazio pribatua lortu nahi dugu. Azken finean, Europako Kultur Hiriburutza berriro proiektu partekatua eta komuna izan dadin lortu nahi dugu, non kulturaren, gizartearen, hezkuntzaren eta ekonomiaren arloko eragileek eta hiritarrek aukera izango duten ikasteko, ikertzeko, lan egiteko, parte hartzeko, ekarpenak egiteko, elkarlanean jarduteko, harremanetan jartzeko, mundura proiektatzeko eta, Donostia 2016ren lorpenik handiena dena, elkarrekin bizitzeko.

Europako Kultur Hiriburutzak lagungarria izan beharko du hirian eta herrialdean **beste kultur estrategia batzuk** sustatzeko eta garatzeko, hau da, kulturaren arloko politiken eta ekimenen kudeaketa partekatuan herritarren protagonismoa eta inplikazioa sendotuko duten kultur estrategiak sustatzeko eta garatzeko. Gure hirian kulturaren hainbat esparrutan lan egiten duten elkarteen eta kolektiboen sare handi horren aliaturik handiena izan beharko du Udalak; ez luke izan behar haien jarduerak garatzea eragozten edo zailtzen duen lehiatzailea edo arerioa.

Itunak eta akordioak ezarri beharko dira nahikoa baliabide eta tresna jartzeko tokiko kultur eragileen eskura. Itun eta akordio horien bitartez, eragile horiek parte-hartze aktiboa eta arduratsua izan beharko dute –modu partekatuan eta adostuan– udal-ekipamenduetako espazioen kudeaketan eta erabileran eta Kultur Etxeetako zerbitzuen eta jardueren programazioan.

Donostiako kultur ehun aberatsa eta dibertsifikatua sustatu eta bultzatu behar dugu eta, horretarako, bereziki laguntza eman beharko diegu sortzaile, artista eta ekintzaile gazteei. Neurri zehatzak eskaini behar dizkiegu udal-eskumeneko administrazioaren, hirigintzaren eta ekonomiaren arloan, betiere kultur industria berritzaile eta sortzaile txikiak, ertainak eta handiak finkatzeko eta, horien bidez, Donostian enplegua sortuko duten espazioak eraikitzeko eta kultur foku erakargarriak eratzeko, baita gogoetarako, kritikarako, sormen artistikorako eta pertsonen, ideien, ekintzen eta proiektuen trukerako ere.

Kultur asaldurako espazio horien artean, espazio bat nabarmentzen da: **Tabakalera**. Kultur ekipamendu horrek 2015eko udazkenean zabaldu beharko ditu ateak, eta, jatorriz, kultur fabrika baten modura, hots, kultura garaikideko nazioarteko zentro baten modura hartu zen aintzat. Gaur egun, ateak zabaltzeko hilabete gutxi falta direnean, Tabakaleraren kultur proiektuak ez du argi definitu zer egiteko beteko duen hiriaren eta herrialdearen kultur mapan, zer kultur zerbitzu eta programazio eskainiko duen eta, batez ere, zer publikori zuzenduko zaizkion bertako proposamenak eta jarduerak.

Tabakalera zentroaren moduko kultura garaikideko sormen-zentro bat abian jartzeko egin beharreko inbertsio publikoak, beraz, diziplina anitzeko kultur ikuspegi heterogeneoak eskatzen ditu. Sektore espezializatuak eta hain espezializatuak ez diren beste sektore batzuk erakartzen jakingo duten kultura programazioak eta erabilerak eskaini beharko ditu, eta, hartara, Donostiako hiritarrentzat erakargarria izango den eta herrialdeko eta nazioarteko proiekzioa izango duen askotariko erabilera kultural eta zibiko zabala eskaini beharko du.

/// DONOSTIA 2016, EUROPAKO HIRIBURU KULTURALA

- **Hiritarrek proiektuaren gainean zuten konfiantza, partaidetza eta gogo bizia berreskuratzea** da gure asmoa. Horretarako programaren inguruko informazio, komunikazio eta sozializazio ekintzak areagotu behar dira Donostiako eta Gipuzkoako herritarrek, giza eragileek eta eragile ekonomikoek Donostia 2016 egitasmoa berriro berea egin dezaten. Donostia 2016 egitasmoak Donostiako eta Gipuzkoako kaleetan egon behar du berriz.Proiektu partekatuak, komunikazioa eta gardentasuna.

- **Udalaren eta hiriaren lidergo politiko-soziala berreskuratzea, beste hiri batzuekin itun estrategikoak aktibatuta**, betiere tokiko, nazio-mailako eta nazioarteko hainbat esparrutan Donostiaren erakargarritasuna gehiago eta hobeto bistara dadin eta bakearen eta elkarbizitza-kulturaren hiriarekin lotzen den kanpo-proiekzioa areago dadin.

- **Donostia 2016ko Fundazioan Udalak duen ordezkaritza plurala izatea** udal talde politikoen partaidetzarekin.

- **Espazio publikoak kultur gertaleku gisa eta hiritarren elkarbizitzarako gune gisa berreskuratzea,** eta espazio horiek kultur xedez erabiltzeko eta gozatzeko aukera emango duten aldaketak sustatzea, hirigintzaren arloko aldaketak zein arauzko eta legezko aldaketak izan.

- **Hiriko industria sortzailearekin, artistikoarekin eta kulturalarekin lotzen den enplegu-sorrera bultzatzea** eta sustatzea Udal-administrazioak..

- Europako Kultur Hiriburu baten moduko ekitaldi baten antolamenduari eta jardunari eraginkortasunez erantzungo dion **hiriko plan integrala premiaz prestatzea** (garraio-azpiegiturari eta konektagarritasunari dagokionez, hotel- eta turismo-ekipamenduei dagokienez, bisitarien harrerari dagokienez eta abar).

- **2016ko boluntarioen plan handiari ekitea**, herritarren berotasuna eta inplikazioa areagotzen laguntzeko.

/// KULTURAKO KONTSEILUAK

- Kulturgintzako profesionalek eta eragileek aurrekontuetako lehentasunak eta kultur-politikak onartzeko hartzeko aukera izango dute udalekin batera Kulturako Kontseiluetan, ez bakarrik Donostia Kulturari dagokionez, San Telmo Museoa, Victoria Eugenia antzokia eta kultur arlo ezberdinei dagokienez ere.

- Hiriko kultur sustatzaile pribatuen lana erraztea, tramite burokratikoak sinplifikatuz, gune publikoen et udal ekipamenduen erabilera ahalbidetuz eta laguntza guztia eskainiz kultur jarduera anitzen antolamendua posible egiteko; izan ere, lan horrek izugarri aberasten du hiriko eskaintza kultural aukera berriak eta enplegu berriak sortuz, batik bat artista eta sortzaile gazteentzat industria kulturalen, artistikoen eta berritzaileen inguruan.

/// TABAKALERA

- Tabakalera hiritar guztiei zabalik dagoen kultur ekipamendu publiko gisa berreskuratzea, eta bertako kultur zerbitzuen, espazioen eta programazioaren eskaintza orekatzea eta konbinatzea erabiltzaile espezifiko batzuentzat zein gizartearen sektore zabalago batzuentzat.

- Kultura garaikideko askotariko esparru sortzaileen eta artistikoen funtzio prestatzailea, hezitzailea eta dibulgatzailea berrindartzea, eta publiko heterogeneoak eskura eta uler dezan sustatzea.

- Arteleku Tabakalerarentzat berreskuratzea eta, horrela, bi proiektu horiek integratzea eta beharrezkoak ez diren bikoiztasunak ezabatzea baliabide ekonomikoetan, pertsonaletan eta kultur proiektu eta jardueretan. Hartara, izan behar duena izango da Tabakalera: gure hirian eta herrialdean kultura garaikidearen sormenaren, berrikuntzaren eta hedapenaren arloko erreferentziazko zentroa.

- Kultur fabrikaren izpiritua eta joera berrindartzea, eta kultur enpresen haztegi-izaera sustatzea, baita kultur industrietarako ekintzailetzako eta enplegu-sorrerako ekimenen haztegi-izaera ere. Tabakalerako eraikinak berak eta Mundaizko fabrika-inguruneak –hirigintza-mailan berrantolatu eta egokitu behar denak– hartuko lukete hirian sormen- eta arte-enpresekin lotzen den esparru hori. **Kultur Berrikuntzako Polo** horrek, beraz, jakintza-trukearen, sormenaren eta aplikazio praktikoen fluxuak indartuko ditu.

/// KULTUR ETXEAK

- Kultur Etxeek auzoetako espazio zibiko-kultural gisa betetzen duten egitekoa bi ildotan sendotzea: batetik, hiritarrentzat zabalik dagoen Udalaren atea izango da, hiritarrei arreta emateko oinarrizko zerbitzu deszentralizatuak egingo dituena –hiritarren eskarien, kezken eta ekimenen udal-antena gisa izango da baliagarria–; eta, bestetik, kultur programen prestaketan eta espazioen eta zerbitzuen kudeaketan protagonismo handiagoa emango die auzoetako elkarte eta erakunde kulturalei eta sozialei.

- Udal-teknikariekin batera, zentro bakoitzeko kultur jardueren diseinuan lan egingo duten kultur elkarteen eta taldeen partaidetzarako mekanismoak jarri beharko dira abian. Espazioen erabileraz eta kudeaketaz ere arduratu beharko dute, betiere Kultur Etxeetako instalazioen eta zerbitzuen erabilera handiagoa eta erakargarriagoa ahalbidetuko duten akordioen eta hitzarmenen bitartez. Hortaz, kulturarekin eta gazteekin lotzen diren aisialdiko eta topaketako espazioen gabeziak eta kultur beharrak estaliko dira, batez ere asteburuetan.

- Horrez gain, hiriko kultur eragileen sarearekin partekatuago dagoen lan egiteko modu hori bultzada eta aintzatespen handia izango da elkarteek eta taldeek egiten duten lanerako; izatez, haien esperientzia eta zeregin soziokulturala aintzat hartuta –askotan, baliabide eta bitarteko urriekin

garatzen dutena–, protagonismo handiagoa merezi dute hiriaren ohiko kultur errealitatean.

- Txomin auzoko hirigintza-garapen berrietarako kultur ekipamenduen eta zerbitzuen arloko premiak aurreikustea.

/// NAZIOARTEKO JAIALDIAK ETA KULTUR EKITALDIAK

- Gure jaialdiak eta ekitaldiak indartu behar ditugu: Nazioarteko Zinemaldia, Jazzaldia, Musika Hamabostaldia, Giza Eskubideen Zinemaldia, Fantasiazko eta Beldurrezko Zinemaren Astea, Dferia, eta abar. Izan ere, kultur motorrak ez ezik, garapen ekonomikoko eta enplegua sortzeko motorrak ere badira, eta hiriaren marka eta internazionalizazioa sustatzen dute. Hortaz, ekitaldi horiek kalitatean eta ikusle kopuruan hazten jarraitzeko beharrezko baliabide ekonomikoak bermatuko ditugu, mundu-mailan erreferente izateko eta programazioan, diziplinetan eta publiko eta merkatuetan berritzeko.

- Hiriko kultur eragileen ahaleginarekin eta gogo biziz egiten diren eta urte osoan Donostiako kultur programazioa kantitatean eta kalitatean aberasten duten kultur ekitaldiei eta ekimenei lagunduko diegu, hala nola Dock of the bay jaialdiari, Surfilm jaialdiari, edo musika-programazioei.

/// ANTZOKI ZAHARRA

- Antzoki Zaharra erabilera anitzeko kultur espazio bihurtzea eta, horrela, bertan musikarekin eta arte eszenikoekin lotzen den diziplina anitzeko programazioa garatu ahal izatea. Kultura eta aisialdiko eskaintza erakargarria eta interesagarria eskaini nahi da bertan, eta bertako musikariek eta sortzaileek lan egiteko eta haien jarduerak ezagutarazteko benetako aukerak izango dituzte antzoki horretan.

- Ekimen pribatuak kudeatuko luke Antzoki Zahar berritu hori. Horretarako, ideia-lehiaketa jarri beharko da abian, kultur erabilera berriak definituko dituena eta erabilera horietarako eraikinaren egokitzapena eta kudeaketa-proposamena zehaztuko dituena.

- Antzoki Zaharraren erabilerak berriro definitzeak baliagarria izan beharko luke loturak sendotzeko eta hobetzeko jada finkatuta dauden eta hiriarentzat garrantzi handikoak diren kultur ekimenekin, hala nola Fantasiazko eta Beldurrezko Zinemaren Astearekin.

/// BELLAS ARTES

- Bellas Artes eraikina hiriarentzat eta hiritarrentzat berreskuratzea eta eraikina jendeari berriro zabaltzeko aukera ahalbidetzea, horixe baita hiri-ondarea benetan eta eraginkortasunez babesteko modu bakarra.

- Jabego pribatuarekin eta erakunde publikoekin negoziatzea, eraikinaren erabilerak –lehentasunez kultur erabilerak– onartuko dituen soluzio adostua bilatzeko. Erabilera posibleen artean Donostiako Orfeoiaren egoitza izatea da horietako bat -bere garaian izan zena errekuperatuz- eta Ahotsen Etxea gisa, Gipuzkoa osoan eta Donostian dugun abesbatzen aberastasunari lotuta, herritarrei zuzendutako kontzertu eta hainbat ekitaldi urtean zehar eskainiz.

/// ONDAREA: BABESTU, BALIOAN JARRI ETA JAKITERA EMAN

- **Alde Zaharra eta Kaia.** Esanahi handiko Alde Zaharra dugu historia, arte, hirigintza et arkitektura ikuspuntuetatik eta ondare garrantzitsu hori babestearen aldekoak gara, Eusko Jaurlaritzak oraindik babestu gabe izan arren. Babestu eta balioan jarri behar dugu, baita turismo erakarpenari dagokionez, bisita gidatuak indartuz eta hiriaren benetako historia berreskuratuz.

- **Urgull.** Urgulleko multzoaren balio artistikoa eta turistikoa indartu behar da. Sozialistok duela urte batzuk eman genion hasiera bide horri harresiak leheneratzearekin eta Hiriko Historiaren Etxea egokitzearekin. Bisita gidatuak eta antzerki modukoak proposatzen ditugu, Urgullen eta hiriaren gainerakoan izan ziren gertakari historikoak gogoratzeko. Urgullen zehar, informazioa emango duten azalpen-panelak jartzea sustatuko dugu, baita Urgullen eta hirian gertatutakoaren dibulgazio historiko zorrotzeko lanak eta gida turistikoak argitara ematea ere. Ingelesen hilerria gisako lekuek arretaz zaintzea eta ezagutaraztea merezi dute, horien xarma, berezitasuna eta interes turistikoa nabarmenduta.

- **Azalpen-panelak monumentu historiko-artistikoetan.** Azalpen-panelak jarriko ditugu monumentu historiko-artistiko guztietan, horien ezaugarri nagusien berri emanez. Horrela, monumentu horiek identifikatu egingo dira, eta hiriaren ondare-aberastasuna ezagutarazi eta hedatuko da.

/// EUSKARA

- Euskararen erabileraren normalkuntzarako dinamiketan eta proposamenetan aurrera egiten jarraitzea udal-administrazioaren zenbait esparrutan eta hiriaren osotasunean, betiere donostiarron benetako elebitasunaren alde eginez –eta ez alde bateko edo besteko elebakartasunaren alde–.

- Euskara normalizatzeko politikak txertatzea hizkuntz eta kultur aberastasuna babesteko politiketan, baita hizkuntza guztiak elkar

ulertzeko eta komunikatzeko tresna gisa –eta ez liskar politikorako eta identitariorako tresna gisa– ulertzen dituen politikan ere.

- Eragile aktibo izatea artista, sortzaile, zientzialari, ekintzaile eta abarren euskarazko lanaren produkzioan, hedapenean eta programazioan, hizkuntz elkarbizitzaren ikuspegitik –eta ez hizkuntz lehiaren ikuspegitik–. Horretarako, publiko zabalago eta heterogeneoagoen hurbiltasuna eta ezagutza sustatuko da.

- Udalak hiriko hizkuntz aberastasunaren eta aniztasunaren aldeko kontzientziazio zibikoko programak prestatzea, Donostiaren errealitate plural, ireki eta integratzailearen isla gisa.

/// KULTUR ANIZTASUNA

- Donostian erroldatutako pertsonen % 10 beste herrialde batzuetatik datozen pertsonak dira. Beste hizkuntza batzuk hitz egiten dituzten eta beste kultura bat duten donostiar berriak egotearen ondoriozko aberastasuna ezagutzeko eta baloratzeko gauza izan behar dugu.

- Kultura anitzeko ondare hori bistaratu nahi dugu; kultur jardueretan agertzea eta integratzea eta hirian bizi diren askotariko kulturen, artisten eta sortzaileen artean benetako trukea eta aberastasuna egotea lortu nahi dugu, betiere Donostian modu aktiboan eta integratzailean lan egiten duten kultura anitzeko elkarteen eta taldeen parte-hartzearekin.

/// JAIAK

- **Auzo guztietako jai herrikoiak bultzatzen jarraituko dugu** eta urte osoan beste jai- eta kultura-ekimen batzuk sustatzen jarraituko dugu, auzoak bizi egon daitezen eta auzotarrek parte-hartze aktiboa izan dezaten erkidegoaren dinamismo soziokulturalean.

- **Aste Nagusia**. Saguesko doako kontzertuen musika-eskaintza sendotuko dugu eta **musikaren arloko profesionalez eta musika-kritikariez osatutako talde independentea** sortuko dugu **Aste Nagusiko kontzertu-programa erakargarria adosteko**, hainbat publikoren iguripen eta lehentasun musikalei erantzungo dien programa adosteko.

- **Danborradak**. Hitz ematen dugu hala **eskatzen duten danborrada guztiek** eta, bereziki, erdigunetik urrun dauden auzoetako danborradek, hala nola **Altza eta Intxaurrondo gisako auzoetako** danborradek, **segurtasun-langileen laguntza izango dutela** egiten duten ibilbidean, eta horiek arduratuko direla trafikoaz eta danborrarien segurtasunaz.

/// KIROLAK

- **Kluben Kirol Kontseilua.** Hiriko kirol-klubek kirol-arloko udal-politiketan parte har dezaten lortu nahi dugu, bai udalaren kirol-ekipamenduen kudeaketan, bai zerbitzugintzan, bai aurrekontu-lehentasunak eta inbertsio-beharrak onartzeko erabakietan, baita kirola sustatzeko eta kluben lana laguntzeko politika partekatuetan ere. Izatez, sozialistok kirol-kluben garrantzia nabarmendu nahi dugu. Kirol-klubek aliatutzat jo behar dute Udala, ez areriotzat.

- **Kiroldegiak eta udal-instalazioak modernizatzeko plana**. Altzako kiroldegi berriaren eraikuntzaz gain, Kluben Kirol Kontseilu horren barruan batera eta arduraz ekingo diogu kiroldegiak modernizatzeko planari. Edonola ere, erabiltzaileentzako zerbitzuaren kalitatea hobetzeko premiarik handiena duten konponketei eta inbertsioei emango zaie lehentasuna.

- **Anoetako estadioa eta estadio txikia berritzea**. Anoetako estadioa berritzeko lanak sustatuko ditugu, Real Sociedad taldeari laguntzeko. Beharrezko erakundeen arteko elkarlanaren bidez, Realak ahalik eta baldintzarik onenetan jokatzen duela bermatuko dugu, baita ahalik eta bazkide kopururik handiena har dezakeela ere. Erreforma-plan horrek, halaber, estadio txikia berritzea hartuko du aintzat. Edukiera egokia izatea hartuko da kontuan eta atletismoa, errugbia eta bestelako kirol-modalitate batzuk baldintza egokietan egiteko beharrezko instalazio osagarriak dituela ere bai.

- Donostiako **kirol-klubei eta -entitateei zuzendutako laguntzak indartzea**, batik bat, kirol-modalitate **minoritarioetan** lan egiten dutenei eta **berdintasuna eta emakumeak** kirolean maila guztietan aritzea sustatzen dutenei zuzendutakoak.

- **Hirugarren adinekoen artean kirola eta ariketa osasungarriak sustatzea.** Hiriko parkeetan, eta leku egokietan, adineko pertsonen ariketa osasungarria erraztuko duten elementu estatikoak jarriko ditugu.

- **Kirol-ekitaldien antolaketa sustatzea eta beste ekitaldi batzuk erakartzea**, lasterketak, atletismo-mitinak, errugbi-partidak, bela-lehiaketak, uretako kirolak...

PSE-EE
PSOE

ernestogasco.es